

## 2014-UDAZKENA-AUZO BATZARRAK

<b>Auzoa</b>	<b>Areta</b>
<b>Data</b>	2014-12-01
<b>Ordutegia</b>	19:00 – 20:40
<b>Lekua</b>	Aretako Kultur Etxea
<b>Asistentzia</b>	<p><b>*Ordezkaritza politikoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jon Iñaki Urkixo - BILDU</li> <li>- Txari Balado - BILDU</li> <li>- Alfonso Larrazabal - BILDU</li> <li>- Koldobika Zabala - BILDU</li> <li>- Txelis Letona - EAJ/PNV</li> <li>- Aroa Cerrada - EAJ/PNV</li> <li>- Txaro Sarasua - PSE-EE</li> <li>- Julián Larisgoitia - PSE-EE</li> <li>- Paula Cuesta - PP</li> <li>- Nerea González - OMNIA</li> </ul> <p><b>*Udal teknikariak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Juan Fernando Etxebarri – Lan eta Zerbitzuetako Arlo Burua</li> <li>- Felipe Malkuartu – Lan eta Zerbitzuetako Arloko Arduraduna</li> </ul> <p><b>*Idazkaria</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jaione Arza</li> </ul> <p><b>*Dinamizatzailea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- José Cerro</li> </ul> <p><b>*Auzokideak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-guztira total - 41</li> <li>-neska - 18</li> <li>-mutilak - 23</li> </ul>
<b>Gai-ordena</b>	<p><b>1_ Aurkezpena.</b></p> <p><b>2_ Obralan eta Zerbitzuen Foru Plana.-</b> Gauzatutako ekimenak: Tren Geltokia – Tunela - Maestro Elorza. Zenbatekoa: 2.890.473,04 €</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Azpiegiturak: Lamuza Parkea, Luzatuta Zumalakarregiko kolektorerraino. Zenbatekoa: 1.266.034,51 €.</li> </ul> <p><b>3_ Lamuza Parkea:</b> Sartu da Foru Planean berritzea saneamendua eta oinarritzko azpiegiturak.</p> <p>2015 urtean, guztirako aurrekontua 1.266.034,51 €koa da, , eta horren barruan,</p>

	<p>331.377,97 € badagozkio Lamuzako zubia eta Zumalakarregiko oboidearen arteko saneamenduaren zatiari.</p> <p>4_ <b>Santa Ana Kluba.</b> Santa Anako komunak egokitzea. Inbertsioa: 22.000 €.</p> <p>5_ <b>Markesina, berinapea.</b> Inbertsioa: 9.171 €</p> <p>6_ <b>Areta Frontoia.</b></p> <p>Itoginak kendu eta teilatua konpondu ahal izateko, "bizitzaren haria" ipini da. Itogina eta hormak konpontzeko aurrekontua: 35.000 € gora behera izan da.</p> <p>7_ <b>Iturralde: erreforma eta irisgarritasuna.</b> Garajea bota egin da eta zonaldea egokitzeko eta bidea zabaltzeko proiektua prestatzen ari da. Argiztatzearen egokitzapena egin da.</p> <p>8_ <b>Web berria.</b> Argiagoa, funtzionalagoa, parte hartzaileagoa. Berriak: zu zeu udala, erantzun lasterreko postontzia da, edozein auzokok galdetzeko izapide bat non egin edo mugikorra, tableta edo ordenagailutik udalerrian behatu edota ikusi ahal izan duen edozein akats edo faltaren berri eman ahal izateko.</p> <p>9_ <b>Zabor organikoaren bilketa. Lehen datuek erakutsi dute oso emaitza onak izan direla Aretan.</b></p> <p>10_ <b>Parkea.</b> Ipintzea ping-ponga, tenis-mahaia eta porteriak, atea.</p>
<p><b>Edukia</b> Contenido</p>	<p>1.- Arabako Foru Aldundiko Diru-Laguntzen Foru Planeko diru-laguntzekin, udalek urtero egin ahal dute eskaera bi obralan gauzatzeari ekiteko. Gaur egun, Jose Matia eta Maestro Elorzako saneamenduko obralana egiten ari da; horren barruan sartuta dago Renfeko tren geltokirako irisgarritasuna zein alboko tunela edo azpiko pasabidea zabalago egiteko lanak.</p> <p>2015 urtean Aldaiko erreka bere oneratzea egingo da; horretarako Aldundiak % 90a ipiniko du, obralanaren kostua den miloi bat eta hirurehun mila euro ingurutik. En el año 2015 se realizará la recuperación del arroyo Aldaikoerreka, para lo que la Diputación aportará el 90% del cercano al millón trescientos mil euros que supone la obra.</p> <p>Gauza da apurtuta dauden Ugartetik datozen saneamendu sareen isuriak saihestea.</p> <p>2.- Herriko Etxeko Udalbatzarraren Osokoak, Lamuza Parkeko eraikinek duten egoera horren hondatua ikusi ostea, mozio batzuk onartu ditu eta horien berri eman dio Parkeko eraikinen jabea den Aldundiari, geldi egon barik ekin diezaion eta eraikinok bere oneratzeko eta birgaitzeko has dadin, izan ere, azken urteotan ez baita eraikinetan inolako konponketarik egin..</p> <p>Eskerrak ematen zaizkio SOS Lamuza Parkea taldeari hobariok bultzatzeko egin duen lanagatik. Gaur egun, halaber, Arabako Biltzar Nagusietan aztertzen ari da gaia.</p> <p>Herriko Etxeak bere jabetzako eraikina zen Etxe Nagusian eraberritze lanak egin zituen; 1.000.000,00 € inbertitu zuen horretan.</p> <p>2011 urtean bazegoen Aldundiaren konpromisoko 3.000.000 €ko kreditu bat</p>



eta espero dute hori mantentzea.

3.- Santa Anako komunak egokitzea. Orain gauzatzen ari da. 22.000 €ko inbertsioa da.

4.- Autobusa itxaroteko markesina edo berinape bat ipini da. Inbertsioa 9.171 € izan da.

5.- Areta Frontoian, "bizitzaren haria" izenekoa jarri da teilatuetan, gero horietara igo eta segurtasunez edozein obralan egin ahal izateko. Gastuak suposatu du 35.000 €, kanpo aldeko konpontze-lanetan, hala itoginetan nola hormetan.

6.- Iturralde kalearen erreforma eta irisgarritasuna.

Iristea eragozten zuen garaje bat eraitsi eta bota egin da eta, gaur egun, enpresa bat arduratzen ari da proiektua egiten horren irisgarritasuna eta egokitzapenerako. Bilera egin du udal arkitektoarekin eta auzokoekin horren erredakzioa egiteko. Planoak amaituta daudenean, berriz ere bilduko dira horiei buruzko edozein ekarpen jaso ahal izateko. Aurreikusten dira 3 fase hori gauzatzeko eta, era horretan, dagokion aurrekontu partida prest eduki ahal izango da.

7.- Udalaren web orria.

Web orriaren mantentze-lana zeraman enpresari eskatu zaio saiatzeko Herriko Etxea eta auzokoen arteko komunikazioa errazten eta modernizatzen, edozein eskaera edo erreklamazio egin ahal izateko orduan. Hemendik aurrera, prest egongo da erabili ahal izateko sakeleko mugikorreti, tabletetik edo ordenagailutik. Mugikorretik bertatik argazkiak atera ahal izango dira eta era zuzen eta artezean bidali ahal izango dira dagokion arlorra.

8.- Zabor organikoaren bilketa.

Udalerriko bi auzotan harrera oso ona eduki zabor organikoaren bilketak eta horietako bati izan da Areta.

9.- Areta parkean ipini egin dira ping pong edo tenis-mahai bat eta porteriak edo atea.

10.- Enpresa mintegia: Arza eraikinean 15 m<sup>2</sup>ko 9 lokal prestatu eta gaitu dira, 90.600 €ko aurrekontuaz, enpresa berriei prezio baxuan alokatzeko aukera eskaini eta eman ahal izateko. Kontratua indarrean egongo da sorrerako lehen bi urteetan zehar; Herriko Etxeak hartuko ditu bere gain hainbat gastu, hala nola, esaterako, argia eta ura. Bada aukera garrantzitsua enpresentzat. Informazioa eta betebeharren datuak Garapen Agentziak eskaintzen ditu.

11.- Basaurbe: Hondakin Urak Arazteko Tegia, HUAT, -Araztegia-.

Bilerak mantentzen ari dira Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuarekin,



	<p>Basaurbe aldeko araztegiaren sorrera eta erakuntzarenhasi ahal izateko. Une hauetan Eusko Jaurlaritza saiatzen ari da akordioetara iristen erosteko alde horretan okupatuko diren lur sailak, hala nola Arabako Foru Aldundiarekin, izan ere, nahi baitu aurrekontuari ekitea alde bietatik %50ean, bakoitzak bere aldetik. Obralan amaituta egon behar da 2017 urterako. Horregatik 2015a urte garrantzitsua izango da.</p> <p>12.- Katea aldeko baserria eraistea edota botatzea. Zuen arriskuagatik, eskatu zitzaion jabeari hori eraistea, botatzea. Jada egin zuen hori. Auzokoa: Irakurri du ondoko komunikatua Landeta/Gasteiz kalea alderako HAPOre 36. Aldaketari buruz:</p>
<p><b>Galderak</b> Preguntas</p>	<p>“Laudioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 36. Aldaketa Landeta/Gasteiz kalerako aho batez onartu zen 2013k azaroaren 25 egunean egin zen Udalbaren Osoko bilkuran, non udaltzako kideek nabarmendu zuten alegaziorik ez zegoela eta txosten teknikoan aldeko iritzia.</p> <p>Landeta/Gasteiz kalea zonaldeko berrogeita hiru auzokok sinatu ditugu idatzi batzuk non adierazi dugun gure aurkako jarrera aipatu den HAPOren Aldaketa horrekiko, ondoko motibo eta arrazoi hauengatik:</p> <p>1º.- Zonaldeko etxebitza eta lur sailen jabeen jakinarazpenik zuzenik ez ematea ukitutako eta eragindako legez. Bakarrik jakinarazi zitzaie zuzenean, 36. Aldaketan planteatzen denaren arabera, euren etxeak, ordenazioz kanpo geratzerakoan eraitsi eta bota behar zirenei. Horregatik, auzoko horiek izan ezik, inork ez zuen ezer jakin Aldaketa horretaz eta bere eraginez eta inork ez zuen alegaziorik planteatu ezarritako epe barruan.</p> <p>2º.- 36. Aldaketa horren jakinarazpenik ez ematea egindako batzarretan, zeintzuetan, hara nondik, bai tratatu den Laudio 2025 proiektu estrategikoa, zeinen irizpideak Udalerri guztiaren hirigintza garapenaren oinarritzko erreferentzia izan behar diren, eta baderitzogu irizpide horiek ez dutela inspiratu, prezeski, 36. Aldaketa hau.</p> <p>3º.- Beraz, eta ondorioz, aipatu den 36. Aldaketan parte hartzeko aukera kontuan hartu ez izana, Landeta/Gasteiz kalea alderako nahiko genukeen hirigintza garapenaren ideia adieraziz eta guera iritziak eta iradokizunen ekarpenak eginez.</p> <p>4º.- Bada ekimen pribatuko proiektu bat, espekulazio asmoa duena, lur sailen luze-zabalera txiki batzuetan kontzentratutako etxebizitzaren masifikazio intentsioaz, behe solairua gehi sei altueretako erakinen bitartez, zeintzuek arean gehiago zorrotzuko dituzten alde horretan dauden hirigintza arloko desorekak; proiektua azaltzeko memoriak baditu pilo bat akats, ezberdintasun eta kontraesan, Udaletxera bidalitako idatzietako batean zehaztasunez adierazi eta erreferentziatu ditugunak.</p>



5º.- Landeta aldeko auzokoen artean ardura eta kezka dago horko erakinaren segurtasunagatik, egun jada eraginda badago pitzaduren agerpenaz, zeintzuk handiagoak egin ahal litezkeen alboko bost eraikin handien eraikuntzako obralanekin, bi bere altueraren parean eta beste hirurak galtzaren aurrez aurre. Zonaldeko beste auzoko batzuk arduratuta eta kezkatuta azaldu dira, zonaldean, non soilik dauden 68 etxebizitza, bost bloke Landetan eta Gasteiz kaleko 28 zenbakitik hasita bi bloketan, 102 etxebizitza berri txertatzeak, banakako eta elkarrekin erkidego erako bizimoduan suposatuko lukeen aldaketagatik. Lur sailen jabeak diren auzokoak higiezinaren abentura batean enbarkatuta ikusiko lukete euren burua, zeren euren lur sailak proiektuaren eskueran jarri beharko lituzkete eta, eraikitzen hasi aurretik, zonaldearen urbanizazioaren eta ordenazioz kanpo geratuko liratekeen eraikinetako 11 auzokoren birlojatzearen gastu garesti eta ugariekin kargu egin. Eta hori guztia, oinarrituta etorkizuneko irabazi hipotetiko batzuetan, zeintzuk sinesgaitzak suertatzen diren egungo higiezinaren krisian eta, edozein kasutan ere, lursailen lagapena ez bada egiten, horiek dezbabetzapenez lortzea suertatuko litzateke.

6º.- Zeren baderitzogun partikularki Landeta eta Gasteiz kaleko eta oro har Areta aldeko auzokoei era horren garrantzitzuan eragiten dien proiektu bat udalaren ekimen publikoak bultzatu egin behar duela eta herritarren parte-hartzea kontuan hartuta batzarrak, lan-mahaiak eta gauzak eta iritziak amakomunean ipintzeko bileren bitartez, enpresa pribatu baten espekulazio interesen gainetik auzokoen bizi-kalitatea eta ongizatearen arabera pentsatutako hirigintza proiektu bat sortzera ailegatu eta iritsi arte.

Arestian azaldutako guztiari dagokionez, Auzo Batzar honi jakinarazten diogu ezen pasa den irailaren 29 eta urriaren 24 egunetan Herriko Etxeko erregistratu ditugula sarreran bi idatzi zuzendutakoak alkateari eta Udal Korporazioko edota Udalbatzako kide guztiei, non azaltzen dizkiegun geure dudak, zalantzak eta kekek. Idatzi horiek bazeramatzen alboan zonaldeko auzokoen 43 sinadura. Eta ezen, urriaren 21 egunean, Landeta eta Gasteiz kaleko auzokoek, batz bestea 50 batek edo, bilera bat eduki genuela Kultura Etxean gai honetaz tratatzeko eta jarduteko era erabakitzeak. Erabaki genuen eskatzea bilera bat Herriko Etxean alkatearekin eta hirigintzako zinegotziarekin. Bilera egin genuen urriaren 23 egunean. Bertan egon zen, baita ere, udal arkitektoa eta parte-hartu genuen, berriro, 50 bat auzokok. Bileratik pozik irten ginen alkateak eta hirigintzako zinegotziak hartutako jarreragatik eta ikusirik badaudela bideak gai hau bideoneratzeko. Ondoren, irakurriko dira Herriko Etxeak bere gain hartutako konpromisoak:

1.- Zonalde horretarako Hirigintzapenerako Ekimen Programa aurkezten bada, Herriko Etxeak parte-hartze prozesu bat egingo du interesatuta dauden auzoko guztiekin, non edukiko duten beharrezko informazio guztia Programa horren ondorio eta eraginei buruzkoa. Behin informatuta egon ostean, dagozkien alegazioak arkez ditzakete eta Udalak kontuan hartuko ditu alegazio horiek.



2.- Egun, eskatu zaio udal arkitektoari HAPOnen berrazterketaren erredakziorako kontratazio espedienteari hasiera emateko oinarriak ipintzeko. Prozesu horren barruan posible izango da udalerriko edozein zonalderen hirigintza egoera berraztertzea edota berrikustea. HAPOnen berrazterketa horrek edukiko du bere metodologian elementu garrantzitsu legez herritarren parte-hartzea. Parte-hartze prozesu horren barruan analizatu da Landeta/Gasteiz kalea zonaldea eta bertako auzokoak gonbidatuak izango dira parte-hartzeko, antzeko egoerako gainerako auzo eta zonaldeak bezala.

3.- 1) eta 2) puntuan adierazitakoari buruzko guztian Herriko Etxearen aldetiko informazio eta komunikazio konpromisoa.

Azkenik, eskatu zen zehaztasun hauen komunikazioa gainerako auzoko interesatuei.”

Eta idatzia irakurtzen amaitzeko, jarraitu du: “Adierazten dugu egoera honen arduradun eta erantzule egiten ditugula bere egunean Hirigintza Batzordeko kide izan ziren guztiak, izan ere bertan erabaki baitzen, bere garaian, zonaldeko zuzenean eragindako auzokoei eta auzokoen multzoari ez komunikatzea, guztiak, denak ere, era batean zein bestean HAPOnen Aldaketak eraginda, formula bat hautatzea aukeratzerakoan, hau da, Plan Orokorra Aldatzearena, eta ez, esaterako, Plan Partzial baten bidez, zeinek legez ahalbideratzen zuen ALHAOn eta egunkari batean iragarki bakarra txertatzea, alabaina Korporazio honen mantentzen duen informazioaren gardentasun eta herritarren parte-hartzearen konpromisoa urratuz. Eta kexa hori luzatzen diogu, jakina, Udal Korporazio edota Udalbatzar guztiari, izan ere, aipatu den 36. Aldaketa hori aho batez onartua izan baitzen aipatutako Osokoan.

Halaber, nabarmendu nahi dugu ezen, aipatu den bileraren eta irakurritako konpromisoen ostean, orain gure konfidantza jarri dugula Udal Korporazio edota Udalbatza honetan bideoneratzeko eta hori exekuzioan ipintzerantz aurrera egitea eragozteko, eta has dadin Plan Orokorren Berrikusketa berri bat, Laudio 2025 Plan Estrategikoko irizpideetan oinarrituta, gorako lerrun eta mailakoa izateagatik, Landeta/Gasteiz kalea aldeko hirigintza garapen berriari helduko diona eta balio eta indar gabe utz dezala horrenbeste aldiz aipatutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 36. Aldaketa.”

Nerea (OMNIA): Nahi du azaldu egoera eta adierazi du ezen Hirigintza Batzordean eskatu zuela Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketak eragindako auzoko guztiei informazio hori eskaini ziezaiela, beraien iritzia emateko eta parte-hartu ahal izan zezaten, eta adierazi du ezen ardura eta erantzukizuna ez dela oposizioaren, baizik eta gobernu taldearena.

Txelis (EAJ-PNV).- Adierazi du Bildu dela egindako kudeatzeen arduraduna, eta informatu du eurak direla gainerako Korporazioari edota Udalbatzari gaiak bultzatu eta proposatzen dizkienak. Eta adierazi du Udalbatza eta Gobernu Taldearen artean dagoen ezberdintasuna. Halaber, nola Plan Orokorrak txosten teknikoaren euskarria eta Gobernu Taldearen sustapena duen; beraz, inolako legez



kontrakotasunik ez gertatzean, onartua izan zela. Legez, nahikoa zen eragindako auzokoei eskutitza bidaltzearekin.

Txaro (PSE-EE).- Gonbit egin dio idatzia irakurri duen auzokoari, Hirigintzako Batzordera joateko, azalduz badirela 14 urte lanean ari direla prozesuan. Informatu du ezen eskatu zaiola enpresari aldaketak egiteko eta hasierako onarpenean eskatu egin zela informazioa emateko auzoko guztiei eta orori geratuko ziren aldaketei buruz. Adierazi du hirigintzako Administrazio Orokorreko Teknikaria den Cebolla jaunak ez hori aktan jaso eta horrek ez zuela nahi izan auzoko guztiei informazioa eman, baizik eta jakinarazpena eman zien soilik Hirigintzako Ordenazioz kanpo zeuden etxebizitzetako auzokoei. Dio ezen PSE-EE-k eman zuen boto koherentea, baina alegazioak aurkezten baziren, horiek aztertuko zituztela, eta beraiei ezin zaiela egotzi komunikazio falta hori.

Paula (PP).- Diot Osokoa onartu egin zela eta Hirigintzako Batzordean esan zela informatu behar zituztela auzoko guztiak. Egun, prest daude gaia berriz ere aztertzeko.

Auzokoa: Onartutako proiektuaren aurrean, informatu du beldur dela Landeta 1 eta 2an dauden eraikinek eragina pairatzea 6 altuerako eraikin baten eraikuntzagatik eta horren hondealan eta indusketengatik, izan ere, bere garaian jasan eta pairatu behar izan baitzituzten dinamita leherketak eta jadanik pitzatuta daudela.

Koldo (BILDU).- Dio Herriko Etxeak kontuan hartuko dituela izan ahal diren arriskuak, Zerbitzu Teknikoei jakinaraziko diela eta auzokoen proposamenak eta alegazioak ondo gogoan hartuko direla. Herriko Etxeko Udalbatzaren Osoko bilkuran onartu behar den hirigintzaren ekimenerako programa bat egon behar da eta hori baino lehen, alde aurretik, dagozkion bilerak egingo dira.

Auzokoa: Eskatu du kontenedore zaborrontzi gehiago hondakin organikoetarako eta galdetu ea noizko ipiniko den autobusa itxaroteko markesina edo berinapea, oraintsu ipinitakoaren aurrez aurreko aldean.

Alkatea: Informatu du Kuadrillako e-maila jaso duela non dioten zabor organikoaren bilketa zerbitzua hedatu eta handituko dela auzoko gehiagorenaga heldu eta zerbitzua eskaintzeko, baina, oraingoz, Aretan, ez dela posible izango horrelako gehiagorik ipintzea, izan ere, ezari ezarian eta apur apurka egiten ari baita auzo ezerdinetatik.

Koldo (BILDU).- Markesina edo berinapea ipintzearen eskaerari erantzunez, komentatu du hori aztertu egin izan dutela, baina baloratu egin dutela hori ipintzen bada hainbat aparkatzeko leku galduko direnez, eta indarreko irisgarritasuneko jarraibideak bete behar dituztela.

Auzokoa: Kexak adierazi ditu txakurren gorozkiak ez jasotzeagatik.



Koldo (BILDU).- Dio, kasu batzuetan, auzoko batzuen portaera, ez dela oso itxurosoa edo eskasa dela, nahiz eta Udalak bitarteko guztiak ipini arren, hala jasotzeko poltsak,...

Auzokoa: Kexatu da Iturralde kalera ibilgailu handien, are anbulantzien irisgarritasun faltaz. Oztopatzen zuen garajea eraitsi egin dela dio baina irisgarritasuna jarraitzen ari dela ezinezkoa izaten.

Koldo (BILDU).- Argudiatu du ezen garajea eragozpen bat zela eta egun kontratatutako enpresa badagoela prestatzen proiektua hiru fasetan oinarrituta, gauzatu ahal izateko eta aurrekontuak ere xede horretarako egokitzeko. Badu epe legez 2015eko urtarrilaren amaiera.

Auzokoa: Dio ez zela aurkeztu HAPOn 36. Aldaketa tratatzen duzen Hirigintzako Batzordean, ez zuelako jakin ere izan berataratu egin ahal zenik ere.

Koldo (BILDU).- Gonbitea luzatu dio bertaratzeko Hirigintzako Batzordera horrek bilera egingo duenean.

Auzokoa: Defendatu ditu txakurrak. Errua egotzi die jabe batzuei horiek duten utzikeriagatik. Eskatu du aldeko kanpaina bat egin dadila.

Dio Gasteiz kaleko 20 – 22 zenbakian ez dela barandarik ipini. Jarraitzen duela saretuarekin eta eskatu du zati horretan ipintzea.

Galdetu du Hondakin Urak Arazteko Tegiaz –HUAT-, Araztegiak. Eskatu du kontuan har dadin segurtasuna, sorraraz ditzakeen zaratak eta eragozpenak eta adierazi, halaber, informazioa emateko auzokoei onartuko den proiektuaren gainean.

Auzokoa: Eskatu du lokal bat haurrek denbora libre eta asti aldia pasa ahal izan dezaten, halako moduz ezen neguan non egon ahal izan eduki dezaten. Halaber, komentatu du Kultura Etxea egoera txarrean dagoela, teilatua, tabernako barra eta sukaldea, beste hainbat gauzaren artean.

Auzokoa: Auzoko honek dio Katean bizi dela eta komentatu du, burokraziagatik edo, komunikazioan dagoen zailtasunagatik, Herriko Etxeari informatu egin ostean zuhaitz bat erortzeko posibilitateaz, ez zela ebakitzera edo moztera iritsi ere egin, zeren azken finean fatxadaren gainera eta kontra erori eta talka egin baitzuen. Horregatik espero du web orri berriaren erabilerarekin, aspektu hori hobe dadin.

Mintzo da Katearen aldean dagoen pasabidearen arriskuaz. Eskatu du argidun seinalea jar dadila, nahiz eta Aldundiaren jabetzakoa izan, badakien ezin exiji daitekeela. Halaber, proposatu du altuera gutxiko badenak ipintzea abiadura gutxitu ahal izateko.





Eskatu du ipintzeko Aretan KZ Gunearen antzeko bulegoren bat, nahiz eta ezaguna den horien ordutegien aldaketa eta Eusko Jaurlaritzak horietan egin duen murrizketa.

Lamuza Parkea: Informatu du orain urte 1etik hona sendotuta herritarren plataformaz eta gonbidatu die bertaratuei Laudioko Kultura Etxean, asteartero, 19:30etan egin ohi diren bileretara.

Erreklamatu du egin dadila Kulturako Taldeen Koordinadora bat.

Felipe Markuartu.- Dio egon zirela badenak, baina Diputazioaren aginduz kendu egin zirela.

Alkatea: Diagnosi bat egingo da udalerriko kultur mugimenduarena. Beraz, 2015 urtean prestatuko udal Kultura Plan baten zirriborroa, talde eta elkarteekin batera, eta horretarako bilerak egingo dira aldiro.

Auzokoa: Dio mesedez eskatzeko dagokionari aldatzeko elizako kanpaien ordutegia, gauetan zehar horien soinua ezabatu ahal izateko.

Koldo (BILDU).- Erantzun du jakinaraziko diola Ingurumeneko Teknikariari.

Auzokoa: Santa Anako zelai eta landak.

Adierazi du han jarrita dauden erretegiak daudela apurtuta eta egoera txarrean. Eskatu du erretegi eta paperontzi gehiago eta argia ipintzea behe aldean. Kexatu da, halaber, bere oholekin sua egiteko mahaiak apurtzen dituen jendearen zibismo eta gizalege gutxiaz edo eskasaz.

Koldo (BILDU).- Argi gehiago ipintzeari dagokionez, komentatu du era puntual batean bai jar zitekeela, baina ez etengabeko eran, izan ere, xederatu beharko litzatekeen aurrekontua altua izango baitzen. Eta garrantzitsua dela basora igotzen diren pertsonak sortzen duten zaborra jaitsi dezatela behera.

Auzokoa: Kexatu da eskolako kantxek duten egoeraz: porteriak, ateak, apurtuta daude, ez dago argirik eta kantxako lur zoruan zulo asko dago.

Koldo (BILDU).- Eskoletako konponketak badagozkio egitea Eusko Jaurlaritzari, baina hainbat zentzoren kanpo aldean berreskurapena eta txukuntzea egiteko sei pertsonaren kontratazioa egingo da.

Auzokoa: Komentatu du oso pozik eta asebeteta daudela Sorgin-Zapatuak, baita ere, Aretan egin daitezen, baina banatu beharko liratekeela gehiago ekintzak udalerriko auzoetatik. Eta, halaber, dio 2013 urtean Aretan ez zutela diru-laguntzarik izan Olentzerorako.

Koldo (BILDU).- Erantzun du ez dakiela 2013an diru-laguntza eman ez izanaren motiboa eta gonbidatu du hori eskatzeko aurtengo urtean, horretarako



aurrekontua badagoelako. Ezagutzera eman du, halaber, ezen 2015 urtean zehar hainbat ekitaldi egingo direla, beti-eta partaideen gutxieneko zenbateko bat baldin badago.

Auzokoa: Adierazi du lehenik behartu eta aztertu behar direla lokaletan egon ahal diren arriskuak, izan ere, Areta Kultura Etxeak une hauetan baditu txarto entzufeak ere.

Auzokoa: Galdetu du ea egin zaion proposamenik Aldundiari Baloreen Ponentzia berriro aztertzeko edo berrikusteko.

Amets (BILDU).- Informatu du Taldeek onartu egin dutela horri buruzko Foru Araua. Beraz, 2015ean ez dela aldatetarik egongo. Halaber, adierazi du ezen pasa den urriaren 27an, Udalbatzaren Osoko bilkurak onartu egin zituela 2015 urterako zergak. Hondasun Higiezeinen Zerga, ibilgailuak hiriko hondakin solidoak eta estolderiarenak bezalakoak izan daitezkeen zerga guztietan izozketa egin da. Soilik eguneratu egin da tasaren bat edo beste.

Auzokoa: Dio web berriarekin espero duela herritarrentzako zerbitzua hobetzea, izan ere 2013ko uztailaren 24an salatu baitzuten Areta kaleko 11-13ren parean kutxatila estalkien lapurreta, eta gaur da eguna oraindik ere jarri egin ez direna.

Auzokoa: Eskatu du konpon dadila Areta frontoirako igoera.

Auzokoa: Jakinarazi du Corona enpresa ohiaren inguruan arratoiak daudela. Kexatu da ezen lehen alde hori oso garbi utzi zutela, baina orain berriz enpresa batek makinariak bete egin duela.

Koldo.- Dio makinaria dagoen lekua zonalde pribatua dela, beraz, ezin dela ezer egin hor laga edo utzi ahal duten makinariari dagokionez.

Auzokoa:

Dio Anuntzibain kokatutako gurutzea apurtuta dagoela.

Alkatea: Argudiatu dio zona hori Orozko herriari dagokiola, beraz, nahiz eta jada alde zuzenetik era informalean bere alkatearekin horretaz berba egin badu ere, berretsiko duela eskaria.

Auzokoa: Komentatu du Gasteiz kalean zehar garbitzen ibili direla, baina kontuz ibili behar direla, izan ere, enberrari azala kenduz gero, igartu egin ahal diren.

Auzokoa: Kexatu da garbiketa zerbitzua ez dela iristen asteburuetan Aretara.

Koldo.- Erantzun du asteburuetan soilik egiten dela erdigunearen garbiketa.

Juanfer Etxebarri.- Adierazi du lehentasuna ematen zaiola zona horri, izan ere, aurrekontuz mintzatuta, ezin baitira egin, baita ere, gainerakoetan.

Koldo.- Dio zehaztuta dagoela herrian garbiketa egiteko asteko maiztasuna eta informatu du zerbitzu horrek duen aurrekontua badela 1.000.000 €/urteko.

Auzokoa: Txakurren gorozkiak jasotzeari dagokionez, eta horri publizitatea emateko, adierazi du hori publizita zitekela ondo era honetan: "Maite baduzu zure txakurra, nahiko duzu besteek ere maitatzea, beraz, jaso bere gorozkiak".

Tratatzeko beste gairik ez izanik, amaitutzat jo da Batzar hau, 20:40 orenak izanik.